

# Euskal kritikaren argiak eta itzalak

(Good and bad aspects of Basque critique)

Olaziregi, Mari Jose

Euskal Herriko Unib. Filologia, Geografia eta Historia Fak.

Euskal Filologia Saila. Unibertsitateko ibilbidea, 5.

01006 Vitoria-Gasteiz. fvpolalm@vc.ehu.es

BIBLID [1137-4454 (2002), 19; 27-48]

---

*Kritikak eta kritikoez dituzten zenbait arazori erreferentzia egin ondoren (gutxiespena, mesfidantza...), euskal literatur sistemaren azterketa egiten du artikulu honek. Jarraian, euskal kritikak, dela publikoak, dela akademikoak, azken urteotan izandako garapena iruzkintzen da. Literaturaren historiak, doktorego-tesiak, monografiak, omenaldiak, aldizkarietako aleak... artikuluan aipatzen diren ikerlanen artean daude. Guztiaren osagarri, azken puntuari, euskal kritikaren inguruko topikoez eta etorkizuneko erronkez egiten da gogoeta.*

*Giltza-Hitzak: Literatur Kritikak. Euskal Literatura. Literatur teoria. Kritika unibertsitarioa.*

*Tras hacer referencia a determinados problemas de la crítica y de los críticos (desprecio, desconfianza...), el presente artículo hace la crítica del sistema de la literatura vasca. A continuación, se comenta el desarrollo que la crítica vasca, tanto pública como académica, ha experimentado durante estos últimos años. Las historias de la literatura, tesis doctorales, monografías, homenajes, revistas... se encuentran entre las investigaciones mencionadas en el artículo. Por último, como complemento de todo ello, se reflexiona sobre los tópicos acerca de la crítica vasca y sus desafíos cara al futuro.*

*Palabras Clave: Crítica literaria. Literatura Vasca. Teoría literaria. Crítica universitaria.*

*Après avoir fait référence à certains problèmes de la critique et des critiques (mépris, méfiance...), cet article fait la critique du système de la littérature basque. On commente ensuite le développement que la critique basque, tant publique qu'académique, a expérimenté durant ces dernières années. Les histoires de la littérature, thèses doctorales, monographies, hommages, revues... se trouvent parmi les recherches mentionnées dans l'article. Pour terminer, en complément à tout ceci, on fait une réflexion sur les clichés concernant la critique basque et ses défis face à l'avenir.*

*Mots Clés: Critique littéraire. Littérature Basque. Théorie littéraire. Critique universitaire.*

Aurelia Arkotxa eta biok euskal kritikari buruzko lehenengo jardunaldiok antolatzeraz animatu ginenean, euskal literaturaren ikerketen gaineko hausnarketa egitea izan zen gure helburu behinena. Beharrezkoa iritzi genion euskal kritikaren egoeraz eta etorkizuneko erronkez mintzatzeari, eta bide batez, gizartearen begietara hain eztabaidagarria den jarduera honen aldeko aldarrikapena ere egiteari.

Izan ere, sorkuntzaren munduan gutxietsitako izakirik badago, hori kritikoak baita. Nork ez du inoiz entzun literatur kritiko baten atzean idazteko balio ez duen izakia dagoelako kontua? Hori gutxi balitz, izugarri oparoak dira kritikoek bertute eta ezaugarri ez oso aipagarriez mintzo diren egile nahiz liburuak. T. S. Eliot poetak inteligentzia jotzen zuen edozein kritikorentzat beharrezko den ezaugarri gisara, alabaina, ez dut uste hori izan denik idazle desberdinek behin eta berriro egin dituzten adierazpenen oinarrian egon den meza. Horretara jarriz, benetan erraza da kritikoek kontrako baieztapenak aurkitzea, eta zehaztasun handiegitan sartu gabe, hortxe daukazue J. R. R. Tolkienen “Munstroak eta kritikoak” artikulua edo A. Bierceren *Deabruaren hiztegia* delakoan literatur kritikoaz ematen den definizio iraingarria. Adibide hauei film batzuetan esaten direnak gehituz gero, literatur kritika egiteko go-goak kentzen zaizkio edozeini... eta euskal kritikari buruzko jardunaldiak antolatzea ere bai<sup>1</sup>.

Gauzak horrela, E. Hemingway idazle iparramerikarrarekin batera, testuaren ezagutzak irakurketa literarioaren plazerra areagotu egiten duela sinesten dugulako... edo guztiz probokatzaila jarrita, J. Benetek zioen moduan, idazle askoren atzean kritiko frustratua dagoela ere esan genezakeelako, funtsezkoa iritzi diogu euskal literaturaz egiten den kritikaren diagnosi modukoa eskaintzeari eta kritikak gure literatur sistemari ekar diezazkion onurak aipatzeari.

Horiexek izango dira, beraz, gure jarduna bideratuko duten ildo nagusiak. Eta abiapuntu modura, has gaitezen euskal literatur sisteman kritikak lukeen lekua definituz.

## **Euskal literatur sistema**

Jakina denez, 70eko hamarkadan, joera pragmatikozko norabide berriak sortu ziren literatur ikerketaren eremuan. Literatur testuaren erabateko gailentasuna baztertuz, sistema kontzeptua darabilte joera teoriko eta kritiko hauek. Azken batean, literatura komunikaziorako bide eta gizarte-instituzio gisara ikusten dute ikerlariok eta Teoria Sistemikoak deritzoten hauetan, oinarri teoriko desberdinak dituzten ekarpenak barneratu izan ohi dira. Hortxe geneuzka, esaterako, I. Lotmanen Kulturaren Semiotika, P. Bourdieu soziologoaren *champ littéraire* kontzeptua, J. Duboisen Instituzio Literarioen inguruan esandakoak eta bereziki, Alemanian sorturiko Literaturaren Teoria Empirikoa (Empirische Literaturwissenschaft), Siegfried J. Schmidtekin bultzatua eta Polisiste-

---

1. Gogoratu Woody Allenen *Deconstructing Harry* filmean ere infernua kritikoz jositako lekua gisara aurkezten zaigula.

men Teoria (Polysystem Theory), besteren artean, Tel Aviv-eko Unibertsitateko Itamar Even-Zoharrek garatua.

Ekarpen guztion ondorioz, Literatura sistema soziokultural gisara definitzen da eta literatur komunikazioan elkar eragiten duten aldagaiak aztertzen dira. Esan beharrik ere ez dago, Teoria Enpirikoak eta Polisistemen Teoriak euren izaera zientifikoa defendatzen dutela eta behin eta berriro azpimarratzen dituztela beren hurbilpenetan dauden oinarri epistemologiko eta metodologikoak Sistema nozioak, beraz, literatur jarduera funtzionalki definitzea eskatzen du eta bertan parte hartzen duten protagonistek elkarren artean dituzten harremanak zehaztea. Enpirikoentzat, testuak ez du berez inongo adierarik, irakurketaren eta bertan parte hartzen duten kognizio eragiketaren bidez lortzen baitu adiera hori. Modu honetan ulertuta, literatur sistema bateko kideek ematen diote testu bati bere adiera. Dakusagunez, ez da zaila baieztapen eta helburu guztiotan, mende hasieran Zientziaren Teoriaren esparruan, K. Popper, I. Lakatos eta bestek egindako ekarpenak antzematea eta enpirismoak beti subjektibotasun artekotasuna adierazten duela onartzea.

Esandakoari jarraituz, euskal sistema literarioaz mintzo garenean, euskal literatur testuen *produkzioa*, *bitartekaritza*, *harrera* eta *birsorkuntza* barnerratzen dituen egituraz mintzo garela zehaztu beharko genuke. Egitura horretan, dudarik ez dago, birsorkuntzaren tartean sartuko lirakeela kritikak egin ditzakeen ekarpenak. Pasa gaitezenez, beraz, oso gaitetiki bada ere, euskal sistema literarioa zehaztera eta kritikak bertan lukeen garrantziaz gogoeta egitera.

*Produkzioaren* alderdiari bagagozkio, jakina da, aro demokratikoa deitu izan zaion honen hasieran, eta hegoaldeari dagokionez behintzat, instituzio desberdinen dirulaguntzen nahiz lege berriei esker, euskal liburugintzaren baldintzak hobea egin zirela. Argitaletxeak ugalduz, sorketa literarioarako dirulaguntzak plazaratuz, edo sariketak bultzatuz, euskal literaturaren mundua giro zurrunbilotsuan sartu zen. *Ustela* edo *Pott* aldizkariaren ildoari jarraiki, literaturaren autonomiaren garaia dugu. Gertakariok guztiok euskal liburugintzan eragin zuten eta zenbakiak guztiz dira adierazkorrak: 1876-1975 bitartean, urtean 31,5 liburu argitaratzen bazen, 1976-1994 bitartean, kopuru hori 659,2 liburura igo zen. Horretaz gain, 1998an<sup>2</sup>, 1.458 liburu argitaratu zirela ikus dezakegu eta Unescoren sailkapena jarraituz, % 14,2 literatur liburua zela, % 26 haur eta gazte literatura eta % 32,6 irakaskuntza-liburua. Guztiz aipagarria da literatur liburuen portzentaia gutxituz joan dela azken urte hauetan eta inguruko hizkuntzetako liburugintzan duen ehunekoarekin berdinduz joan dela. Alabaina, aldatu ez dena, narratibak edo narraziozko generoek duten lehentasun eta gailentasuna izan da. Azken datuen arabera, literaturan argitaratzen denaren % 59 narraziozko testuek osatzen baitute, % 10,1 poesiako lanek eta % 6,3a antzezlanek. Literatur kritikari dagokionez, ezin azken urteetako datu zehatzik eman, daukagun azken datua 1976-1994 epeari dagokiona baita. Urte horietan, literaturan argitaratzen zen % 4 zegoen kritikari. Handik aurrerako ehunekoari dagokienez, Torrealdairen estatistiketan, 1995etik aurrera,

---

2. Ik. *Jakin* 115, 1999ko azaroa-abendua. Torrealdairen eta Espainiako ISBN agentziaren datuak bat ez badatoz ere, *Jakinen* datozen kopuruei jarraitzea erabaki dugu.

“Literaturaren Historia eta Kritika” atala desagertu egin denez (atal horren ordez, “Saioa”, “Generoak nahasian” edo “Besterik” izenburuekin adierazitako atalak datoz)<sup>3</sup>, ezin datu zehatzagorik eman. Ez dakigu desagertu horren oinarrian dagoena interpretatzen. Sailkapen irizpide hutsa bada, harrigarria ere bada inguruko literaturgintzetan “Teoria eta Kritikak” beti izan baitu bere lekua<sup>4</sup>.

Produkzioaren atala osatzeko, idazleei dagozkien xehetasunak aipatu beharko genituzke. Gaur egun 300 idazle inguru dagoela kontuan hartuz, euren ezaugarri soziologikoak honela deskribatuko genituzke: % 90 gizonezkoak dira eta % 10 bakarrik emakumezko. Adinari dagokionez, batez beste, 49 urte dituzte idazleok (idazleen % 70, 30-50 urte bitartean dabil) eta horren ondorioz, argi geratzen da gaur egun argitaratzen duten idazleen artean, belaunaldi desberdinetako egileak kausi ditzakegula. Hortxe dauzkagu, adibidez, 20-30 hamarkadetan jaiotako idazleak (Txillardegia...), edo 64ko belaunaldia deitu izan zaion horretan barneratuko lirartekeen Saizarbitoria, Lertxundi, Urkizu, Urretabizkaia bezalako egileak, edo autonomia literarioaren belaunaldia deritzona, alegia, 1950 ostean jaio ziren egileek osatzen dutena: Atxaga, Iturralde, Sarrionandia, E. Jimenez, Laura Mintegi, Oñederra... eta beste; edo 60ko hamarkadan jaiotakoak eta 80koan argitaratzen hasi ziren Aristi, Zabala, Xabier Mendiguren, Epaltza, Borda eta abar. Horietatik % 60k unibertsitate-ikasketak ditu eta % 6 bakarrik bizi da literaturatik. Esan beharra dago egungo euskal idazle gehienak irakasleak ere badirela.

Lehen esan dugun moduan, 80ko hamarkadan sortu ziren literatur plataformek idazleak ugaritzea ahalbidetu zuten, eta bai halaber, euren eskubideak defendatzeko beharrezkoak ziren erakundeen sorkuntza bultzatzea. Garai horretan sortuak dira *Euskal Idazleen Elkarte-EIE* (1982) edo *Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretatzaileen Elkarte-EIZIE* (1987). Gaurtik begiratuta, dudarik ez dago, euskal itzultzaileek hizkuntza literarioaren sendotze eta aberasteari egin dioten ekarpen funtsezkoa. Euskal irakurleen literatur horizontea aberastuz, gaur egun, Lermontov, Woolf, Joyce, Stevenson edo Primo Levi euskaraz irakurtzea gomendagarria ez ezik, plazer hutsa ere bada. Edozein modutan, azpimarratzekoa da euskarara itzulitako ondare unibertsal honek ez due-

---

3. Hona azkeneko *Jakinen* (115 zb.; 1999ko azaroa-abendua) 1998ko liburugintzari buruz datozen datuak:

Literatura, guztira: 1998an argitara emandakoaren . . .	% 14,2 da.
Eleberria. Ipuina . . . . .	% 59
Olerkia . . . . .	% 10,1
Antzerkia . . . . .	% 6,3
Herri literatura. Bertsoa . . . . .	% 4,8
Antologiak. Gutunak . . . . .	% 4,8
Saioa . . . . .	% 5,8
Generoak nahasian . . . . .	% 4,3
Besterik . . . . .	% 4,8

4. Gaztelaniazko 1998ko liburugintzari dagozkion datuen arabera (ik. Ministerio de Educación y Cultura (1999), *Panorámica de la Edición Española de libros*, Madril), urte horretan 60.426 liburu argitaratu baziren, % 18, hau da, 10.875 liburu, literaturazkoak izan ziren. “Historia de la Literatura. Teoría y Crítica” atalari dagokionez, guztira, 615 liburu eman ziren argitara, literatura-produkzioaren % 5,6 eta produkzio osoaren % 1,02.

la, oraingoz, eta Manu Lopezek aurkeztu berri duen doktorego-tesitik kanpo<sup>5</sup>, euskal kritikaren arretarik merezi izan. Even-Zoharrek darabilen kontzeptuaz baliatuz, itzulpenek, haur eta gazte literaturak, edo emakumezkoek idatzitako literaturak, gune guztiz marjinala dute, *periferikoa* esango lukete teoria sistemikoen defendatzaileek, euskal literatur sistema garaikidean. Edozein modutan delarik ere, eta gai honi berriro ere helduko diogulako, jarrai dezagun euskal literatur sistemaren deskribapen labur honekin.

*Harreraren* alderdiari heldu nahiko genioke jarraian, gure literatur sistemaren barruan ahulenetakoa datekeen alderdiari. Azken urteotan, euskal liburu-gintzak izan duen igoera eta tiraden ugaldenak euskaraz inoiz baino gehiago irakurtzen dela iradoki nahi badigu ere, guztiok dakigu euskal irakurleen perfil soziologikoa ezezaguna zaigula oraindik. Ikerketa soziologiko zabal eta gaurkotu baten faltan, euskal irakurle-mota desberdinen inguruan egin diren azterketek egoeraren diagnosi partziala egiten lagun diezagukete, eta hementxe sartuko genituzke, esaterako, nire doktorego-tesian egin nituen azterketa soziologikoak, 3.000 euskal hiztun gazte elebidun aztertzen zituztenak (ik. *Euskal gazteen irakurzaletasuna. Azterketa soziologikoa*. Bergarako Udala, 1998) edo Siadokok *Egunkariarentzat* 1996an egin zuen ikerketa. Ez da lekua eta momentua bertako ikerketa horietan lortzen ziren ondorioak komentatzekoa baino badira niretzat bi datu guztiz nabarmentzekoak direnak. Batetik, euskarazko irakurlezaletasuna jaitsi egiten dela adinarekin eta irakurzaletasun horrek irakaskuntza zirkuituarekin harreman hertsiegia duela. Bestetik, 20 eta 39 urte bitarteko euskal hiztun alfabetatuek irakurzaletasun eskasa dutela (%36k ez du liburu bakar bat ere irakurtzen urtean).

Ikusten dugunez, Elebitasun Dekretuaren ostean Euskal Autonomia Erki-degoan azken urteotan 100.000 euskal hiztun irabazi ditugula jakina bada ere, askotan aipatu izan da uste genuen baino irakurle gutxiago erakarri ditugula. Alegia, euskaraz ikasi duten gazte asko ez direla benetan irakurzaletu eta euskal literatur merkatuak irakaskuntzarekin lotuegia jarraitzen duela<sup>6</sup>.

Euskal sistema literarioaren eskema laburregi hau nolabait osatzeko, *bi-tartekariez* ere hitz egin beharko genuke. Honi dagokionez, gauza jakina da az-

---

5. 2000. urteko urtarrilean defendatua. Ik. LÓPEZ, M. (2000) *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta estrategiak*, EHUko argitalpen zerbitzua, Bilbo.

6. Honekin batera, azkenaldi honetan behin eta berriro azpimarratu nahi izan da gehienetan aipatzen diren euskal hiztun horiek ez ote diren askozaz ere gutxiago izango. Bernardo Atxagak berak, 1999ko azaroan Donostian eman zuen hitzaldi interesgarri batean, euskal hiztun eta irakurleen tipologia oso interesgarria proposatzen zigun. Egile asteasuarrak hiru euskaldun-mota bereizten zituen. Batetik, euskaldun *patetikoak*, hau da, euskaldunak izanik euskaraz bizi nahi dutenak eta euren buruarekin kontraesan izugarrian, aukera hori kontzienteki egiten dutenak euren burua behartuz (militanteak ere deituak). Patetiko hauekin batera, *sinpatikoak* egongo lirakeke, euskal mundua maite eta itxuraz errespetatzen dutenak, baina inongo behar eta obligaziorik sentitzen ez dutenak euskaraz bizi eta sentitzeko. Azken taldea *antipatikoek* osatuko lukete eta hauen inguruko deskribapenak beharrezkoak ez direlakoan nago. Bernardo Atxagaren iritziz, patetikoen talde horretan leudeke euskal irakurle gehienak eta bere aburuz, 200.000 hiztunek osatuko lukete, gehienez, talde hori.

ken hamarkada hauetan bitartekarien garrantzi eta eraginkortasun komertziala izugarri eraldatu dela eta merkatuaren legeetara makurtu. Espektakuluaren kultura deborgiar honetan, erresonantzia kaxarik gabe, zailtasunez egingo du literatur lan batek aurrera, nahiz eta bere kalitate eta ekarpenak duda ezinezkoak izan. Beste hitzekin esateko, merkatuak agintzen duela esango dugu, gehienetan helburu ez oso literarioz mugitzen den merkatuak.

Puntu honetan, aipagarria da bitartekarien artean irudi berri bat sortu zai-gula azkenaldian gurean: agente literarioa deritzona. Dirudenez, lehenengo euskal agentzia 1995ean sortu zen Hego Euskal Herrian (Ikeder). Hala ere, jakina da idazle gutxi direla agenteaz baliatzen direnak euskal munduan eta oraindik ez dagoela hedatuegia pertsonaia horren beharra gure sortzaileen artean. Agente literarioaz gain, literatur lanen promozioa eragin dezaketen beste elementu batzuek ere mintzatu beharko ginateke, hala nola, 80ko hamarkadaz geroztik gurean gutxituz joan diren literatur sariez. Zenbait literatur sarik idazlearen promoziorako duen garrantzia ahaztu gabe (Atxagaren kasua paradigmaticoa dugu honi dagokionez), gaur egungo euskal literatur merkaturan, sari bat irabazteak baino garrantzi edo eraginkortasun handiagoa izan dezake komunikabideetan etengabe iragarritako lan batek<sup>7</sup>. Honen ondorioz, ez da inondik ere harritzekoa, Literatura Empirikoaren jarraitzaileen artean literatur merkaturan komunikabideek duten garrantzia neurtzera bideratutako ahaleginak azkenaldian izan duten lehenetasuna<sup>8</sup>.

Poliki-poliki jardunaldiotan protagonismo nagusia dutenengana iritsi gara, kritikoengana. Alabaina, euskal kritikaren diagnosiari ekin baino lehen, beharrezko irizten diogu literatur kritikaz mintzo garenean zertaz mintzo garen zehazteari. Horretarako, N. Fryek *El camino crítico. Ensayo sobre el contexto social de la crítica literaria* (Madril, Taurus, 1986) liburuan egiten duen oinarritzko bereizketari helduko diogu. N. Fryeren aburuz, *kritika akademikoa* eta *kritika publikoa* sailkapen bikoitzean laburbil genitzake esparru honetan kaleratzen diren lan gehienak. Lehenengoa, zirkuitu hertsiaigoan gauzatzen da eta gehienetan paradigma teoriko nahiz metodologiko jakinen arabera bideratutako ikerlanak plazaratzen ditu. Kritika publikoaren arloan sartuko genituzke, komunikabideetan nahiz aldizkarietan, dela dibulgaziozkoetan, dela espezializatuagoetan, argitaratzen diren iruzkin, erreseina, elkarrizketa eta abar. Kritika publikoa deritzon honek ez du egitura nahiz metodologia jakin batzuen arabera antolatu nahi bere jarduna.

Sailkapen bikoitz hori argia eta didaktikoa gertatzen dela onartuz ere, bista-koa da zailtasun bat baino gehiago eragiten duela kritika lan desberdinak sailka-tzeko orduan. Esate baterako, komunikabideetako artikulu laburrak kenduta, non sailkatu, adibidez, aldizkarietan kaleratzen diren egile, obra, genero edo gar-rai bati buruzko kritika labor, monografiko edo iruzkinekoak? Artikulu hauetan ez

---

7. Berriki, literatur sarietan irabazle suertatzen diren liburuen zabalpen eskasa azpimarratzen zuten adierazpenak argitaratu dira egunkarietan. Ikus, LOPEZ, J. (2000) "Non daude saritu-tako lanak?" (*Zabalik*, 2000-2-5, 50).

8. Ikus, honi buruz, SCHMIDT, S. J. (1980) *Fundamentos de la Ciencia Empírica de la Lite-ratura*, Madril, Taurus.

da, gehienetan, inongo paradigma metodologikoren aipu espliziturik egiten eta gauza jakina da beren harrera-esparruak unibertsitateetako ikasleek osatzen dutena gainditzen duela. Nire aburuz, eta D. Villanueva bezalako kritikariek egiten dituzten bereizketak kontuan hartuz (ik. *El polen de ideas*, Bartzelona, PPU, 1991, 163-174), kritika lanaren beraren xedeak baldintzatuko luke mota batekoa ala bestekoa izatea. Horrela, artikulua helburua lan baten argitalpenari dagokion informazioa, dibulgazioa edo promozioa badira, kritika publikoaz mintzo gaitetzke. Aldiz, kritika baten oinarrian irakurketa eta azterketa pausatua badago, azterkizun den testua distantzia kritikoz irakurtzen bada lehenengo inpresiotik haratago joanez eta kritika bera arrazoituz, bigarren motako kritika baten aurrean geundeke, N. Fryek "akademikoa" deritzon horren aurrean.

Zehaztapen hauek egin ondoren, euskal kritika desberdinez arituko gara jarraian. Hauxe izango dugu hizpide, hain justu, ondoko lerroetan: bi kritika mota hauek geurean duten lekua eta azken hamarkada honetan indartuz joan diren joerak.

### **Euskal kritikari buruzko eztabaidak eta gaizkiulertuen kronika**

Euskal kritikaren urritasunaren kexuak<sup>9</sup> entzuten ditugunean, gehienetan, euskal literaturaren promozio-bide eskasez mintzo diren baieztapenak egon ohi dira oinarrian. Izan ere, gauza jakina da, euskal liburu batek aurkezpen egunean lor dezakeen oihartzunaz gain, aukera handiak dituela oharkabean pasatzeko. Euskal egunkarietan sortuz joan diren liburugintzari buruzko atalak ez dira, inondik ere, nahikoak argitaratzen denaren berri kritikoa emateko. Dibulgaziozko literatur aldizkariaren ezari, euskal komunikabideetan, batez ere, telebistan<sup>10</sup>, literaturari buruzko saiociek duten presentziarik eza gehitzen badiogu, edo gehienetan kritika akademikoaren zirkuitu hertsia obrari ematen dion promozio eskasa, ulergarria da betiko kexuek indarrean jarraitzea.

Alabaina, bi kritika mota horien bilakaera kuantitatibo eta kualitatiboa neurtzeak artikulua honen mugak gaindituko litzukeenez, azken urteotan bista-koa den ezaugarria aipatzera mugatuko gara: bi kritika moten artean dagoen eten edo distantzia. Gaztelaniazko literatur sisteman, esaterako, Dario Villanueva kritika mota desberdinen arteko hurbiltze prozesuaz mintzo bada (ik. D.

---

9. Euskal kritikaren urritasunaren inguruko adierazpenak aurkitzea benetan da erraza. Adibide batzuk aipatzekotan, hortxe dauzkagu 1988an Bernardo Atxagak egindako adierazpenak (ik. *Deia*, 88-11-14, 51) edo adibide berriagoak gogoratuz, Torrealdaik *Euskal Kultura Gaur* liburuan 365. orrialdean dakartzan egileei egindako inkestaren emaitzak.

10. Malerva idazle italiarrak esaten zuen moduan, kritikariek liburu gutxi erosten eta saltzen dituzte. Horiekin konparatuz, telebistaren erakarmen-gaitasuna askoz ere handiagoa dela frogatzen duten esperientziak ugariak eta ezagunak dira. Frantzia *Apostrophe*, *Bouillon Culture*,... bezalako saiociek hainbat idazleren arrakastarekin eduki dezaketen harremana neurtua dagoen bezala, gurean ez da horrelakorik egin eta mereziko lukeelakoan nago. Azken finean, literaturaren presentzia soziologikoa, sistemaren beraren indar eta oihartzuna ari gara eztabaidatzen puntu honetan. Bitartekari literarioen garrantzia eta premia sustatzen dugun neurrian, euskal kritika aberastuz eta egokituz joango da, normalizatuz.

Villanueva (dir.), *Historia y Crítica de la Literatura Española*, vol9, Bartzelona, Crítica, 1992), gurean ez da horrelakorik gertatzen ari. Beste hitzekin esateko, unibertsitateko zenbat irakaslek kaleratzen dituzte kritika eta erreseinak prentsan?. Komunikabideetako kritikariek zenbat artikulua kaleratzen dituzte erreseina laburren mugak gainditzen dituztenak? Gutxi, ezbairik gabe. Gaurtik begiratuta, azken hamarkada hauetan euskal kritika akademiko (edo zientifikoak) izan duen bilakaera eta sendotze garrantzitsua, kritika publikoak izan duen atzerakadaren parekoa da. Alegia, gure aburuz, gaur egun egunkarietan edo aldizkarietan argitaratzen diren artikulua gehienek ez dute erreseina deskribatzaile laburraren muga gainditzen eta urriak dira benetako kritika arrazoiak egiten duten lanak.

Baina hau ez da beti horrela izan gurean eta memoria pixka bat eginez, erraza zaigu literatur kritikak zeresan handiagoa eman zuen garaietara begiratzeari. Batetik, hortxe dauzkagu, 30eko hamarkadan euskal literaturaren inguruko auziak eragin zuen eztabaida (ik. Aranbarri, I. & Izagirre, K., *Gerraurreko literatur kritika*, Amorebietako Udala-Labayru, 1996). Bestetik, lehenago gogoratu dugunez, 80ko hamarkadan sortu ziren eztabaida literarioak. Lehenengoetan, sinbolismo osteko poetikaren aldekoek, erromantizismo osteko poetikaren aldekoen kontra eztabaidatu zuten. 80ko hamarkadako eztabaidetan, berriz, kritika-mota izan zen gehienetan eztabaidagai.

Tartean geratuko lirareteke, 50eko hamarkadan, *Egan* aldizkarian Koldo Mitxelena argitaratu emandako lan interesgarriak, edo urte batzuk lehentxeago, Andima Ibinagabeitiak *Euzko Gogoan* argitaratutakoak.

80ko hamarkadako eztabaidetara itzuliz, duda ezinezkoa da lege baldintza berrietan sortuz zihozten euskal unibertsitate-gune berriek bultzada berria eman ziotela eztabaida kritikoei. Gogora dezagun, 1981ekoak direla Euskal Filologiako lehenengo 20 lizentziatuak Deustuko Unibertsitatean (urte batzuk beranduago, EHUKo lehenengo promozioa atera zen). 1980ko abuztuan, berriz, Euskal Hizkuntza eta Literaturako lehen hamar katedratikoak izendatzen dira Gipuzkoa eta Bizkaiko institutuetan eskolak emateko.

Promozio berri hauek, literaturaren inguruko hausnarketa egin beharra sentituko dute ugarituz zihozten literatur aldizkari eta plataformetan. Egoera horretan, Koldo Mitxelena "Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia" (*Muga* 19, 1982-12-21, 5-19) artikulua ezaguna kaleratu zuen. Bertan, UZEIri eta hizkuntzaren normalizazioari egiten zitzaizkion kritikekin batera, garaiko kritika gogor eraso zuen Mitxelena. Bere aburuz, kritika gutxiago egiten zen, kalitate eskasagokoa eta inpartzialtasunik gabekoa. Artikulu ezagun honek eragin zituen erantzun ugarien artean, Joxe Azurmendik emandakoan ("UZEI auzitan edo normalizazio bideak auzitan", *Jakin*, 1982) edo Josu Landak kaleratutakoan ("Oker zabilta, Mitxelena, oso oker", *Jakin*, 1982) kontra-ko defendatzen zen, garai haietan 50-70 hamarkadetan baino kritika gehiago kaleratzen zela baieztatuz.

Euskal kritikaren inguruko auzia kritika mota desberdinen arloran lerratu zen urte batzuk beranduago. Kritika inpresionistaren aldekoek eta kritika zien-



tifikoa edo akademikoa defendatzen zutenek, *Oh! Euzkadi* bezalako aldizkariak erabili zituzten eztabaidak bideratzeko. Ordukoak ditugu, esaterako, Ramon Etxezarretak kritika zientifikoaren aurka esandakoak (ik.: “Ez du Jon Kortazarrek zure plazerraren sentsazioa neurtuko, Tere”, 1981) edo Mikel Hernandez Abaituak kritika zientifikoaren alde eta inpresionistaren aurka kaleratutakoak (ik.: “Badakigu EUTG ez dela mundu osoa. Inor ez da idiota” 1981).

Manu Lopezek argitaratu zuen “Kritikak eta kritikoak azken euskal literaturan” (*Jakin* 49, 1988ko urria-abendua, 73-86) artikuluan argi adierazi zituen urte horietako eztabaiden nondik norakoak, eta berdin genererrake Jon Kortazarrek *Luma eta Lurra* (BBK/Labayru, 1997:29) liburuaren sarreran egiten duen birpasaz ere. Kortazarrek oroitarazi digunez, Felix Ibargutxi kazetariak 1987. urtea “Idazle guztiak aztoratu ziren urtea” izendatu zuen eta urte horretan sortutako eztabaida nagusiak laburbildu zituen. Oroituko zaretenez, ordukoak dira Jon Juaristik *Antología de la narrativa vasca actual* liburuari egindako kritikak; Antton Azkargortak, Atxaga, Iturralde eta Ordorikaren *Henry Bengoa Inventariumi* egindakoak; Pako Aristik A. Urretabizkaiaren *Saturno* nobelari egindako kritika; Joxerra Garziak Laura Mintegiren *Bai... baina ez!* nobelaren idazkerari buruz esandakoak; Verinesen egiten diren topaketen ostean Mikel Hernandez Abaitua eta Jon Juaristiren artean sortutakoak; Valentziako Galeuzcan sortutakoak...

Gaurtik begiratura, garai hartako pasio eta eztabaidek kritika, zernahi motakoa zelarik ere, beharrezko eta ezinbesteko irizten zen unea iradokitzen digute. Handik aurrera, eta aldizkari haietako askoren desagerpenarekin batera, gero eta bereizi eta bakanagoak izan dira bi kritika moten arteko konfluentzia-guneak. Eztabaida literario hauen jarraipenak eskatuko lukeen azterketak artikuluko honen mugak gaindituko lituzkeenez, komunikabideetako kritika alde batera utzi eta azken hamarkada honetan euskal literaturaren ikerketan, kritika akademikoa deritzon horretan, eman diren aurrerapausoak aipatu nahiko genituzke jarraian.

### **Literaturaren ikerketa gurean**

Kritikoez eta kritikaz mintzo garenean badira zenbait zehaztopen hasieratik bertatik egin beharko genituzkeenak. Izan ere, dudarik ez baitago, literaturaren ikerketaren arloan kritikak berak lukeen lekua hertsiki lotuta dagoela ikerketa hauek osatzen dituzten beste hainbat arlorekin. 1963an René Wellekek zehaztutako hiru ikerketa-arlo nagusiei (Literaturaren Teoria, Literaturaren Historia eta Literatur Kritikak), azken hamarkada hauetan Literatura Konparatua- ren alorra gehitu zaio. Sinkronia eta diakronia uztartuz, edo teoria eta praxiaren arteko loturak bermatuz, laurak dute harreman hertsia elkarren artean, laurak dira elkarren osagarri literaturaren ikerketan. Has gaitezen azken hamarkada honetako literatur ikerketen birpasa azkarra egiten zehaztu berri ditugun arlo desberdinok kontuan hartuz.

- a) Gure literaturaren ikerketen diagnosi bat egin beharko bagenu, ezbaierik gabe, Literaturaren Historiarena eta Teoriarena lirerateke arlorik urrie-

nak gurean. Bestalde, Teoria aldetik ekarpen gutxi egotea ulergarria bada ere<sup>11</sup>, ulergarria diot, teoriaren arloak lurraldetasuna gainditu egiten duelako, Historien alorrean dauzkagun zenbait hutsune (berezi-ki azken narratibazko produkzioari dagozkionak) azpimarragarriak dira oraindik.

Gaztelaniako literaturan adituek monografia-eskasiari egotzen badiote literatura garaikidearen historiak egiteak dituen zailtasunak (ik. V. García de la Concharen adierazpenak *Historia y Crítica de la literatura española* delakoaren zazpigarren alean), euskal kasuan zailtasunak areagotu egiten dira oraintsu arte hurbilpen diakronikoa egiteko beharrezkoak diren lan sinkronikoak oso urriak zirelako. Atzerapen hau guztiz da ulergarria euskal literatura bera 50. hamarkadan instituzionalizatu zelako jarduera autonomo gisara. Honi, Euskal Filologia Sailen sorketa berantiarra gehituz gero, ulergarria da literaturaren historia urri egotea gurean.

Alabaina, urritasuna ez da izan euskal literaturaren historiari egotzi izan zaien ezaugarri bakarra, Tx. Lasagabasterrek 1983ko artikulua ezagunean<sup>12</sup> salatzen zuen modura, zehaztasun historiografiko eskasa ere oztopo izan baita argitara eman diren ekarpen gehienetan. Lasagabasterrek zioskunez, Koldo Mitxelenaen *Historia de la Literatura Vasca* eza-gunaz gain, euskal literaturaren historia gehienetan autoreak eta obrak elkarren ondoan pilatzen ziren, inongo irizpide literarioirik gabe antolatuta. Alegia, bizitza literarioak euskal gizartean zuen lekua ez zela inondik ere aztertzen. Nire ustez, eskasia horiek (dela monografiari dagokiena, dela literaturaren historiari ere dagokiena) azken urte hauetan konponduz joan dira. Azken hamarkada honetan argitaratu diren zenbait literaturaren historia begiratu besterik ez dago irizpideak guztiz aldatu direla baieztatzeko. Komentatu nahiko nukeen lehenengo lana Jon Kortazarrek 1990ean argitaratutako *Literatura vasca. Siglo XX* (Donostia, Etor) izango litzateke. Kortazarrek berak hitzaurrean dioen modura, ez da euskal literaturaren historia bat zentzu hertsian. 14 kapitulutan, mende honetako egile eta literatur korrante nagusiak aztertzen ditu irakasle mundakarrak, eta monografia-bilduma datekeen honetan, nolabaiteko ikuspegi historikoa ere ematen du. Esandakoaz gain, azpimarragarria da abiapuntu konparatzailez aztertzen direla euskal egile eta obren oinarrien dauden poetikak. Kortazarren lan honek abiapuntu literarioz aztertzen du euskal literatura garaikidearen bilakaera, eta hori dela-eta, euskal literaturaren historia egiteko edo ulertzeko modu gaurkotuagoa iradokitzen digu. Ikuspuntu aldaketa honen beste adibide bat egileak

---

11. Mereziko luke teoriaren alorrean gurean egin diren ekarpen apurrak biltzea. Hegoaldeko unibertsitateetan irakurri diren tesiak eta EHUan aurkeztutako tesinen zerrenda aztertu ondoren, norabide teorikoa duten bi tesina bakarrik aurkitu ditugu: 1987an Joseba Gabilondok Gasteizeko Filologia Fakultatean aurkeztu zuen "Dekonstrukzioa eta idazketa" izenekoa eta 1990 urtean fakultate berean Mari Jose Olaziregik aurkeztutako "Fokalizazioa: hurbilpen teorikoa eta zenbait aplikazio euskal narratiban".

12. Ikus, LASAGABASTER, J. M. (1983) "La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico-bibliográfica", *Mundaiz* 26, 34-52.

bukaeran eransten duen bibliografian legoke, liburuan aztertzen diren autore nahiz obra desberdinen inguruko harrera kritikoa biltzen ahalegintzen baita egilea. 1992an, liburuaren bigarren edizioan, 3 kapitulu gehiago erantsi zizkion lehenengo aldakiari: 80ko hamarkadako poesia eta narratiba eta Bernardo Atxagaren inguruko atala.

Argitara eman den beste literaturaren historia interesgarri bat Jean Baptiste Orpustanek, Bordeleko Michel de Montaigne Unibertsitateko irakasle izandakoak, argitara emandakoa dugu. Bere izenburua: *Précis d'histoire littéraire basque (1545-1950)* da (Izpegi, Baigorri, 1996). Bertan, euskalkien bilakaerari buruzko sarrera baten ostean, bost kapitulutan, euskal literaturaren bost mende aztertzen ditu. Orpustanek bere egiten ditu euskal literaturaren historiagile desberdinen (Koldo Mitxelena, Luis Villasante, Ibon Sarasola, Jon Juaristi, Jon Kortazar) ondorioak eta bestaldeko egileen lanak ditu sakonkiago aztertzen. Azken ezaugarri honi bestaldeko irakurlearentzat gertuagokoak diren xehetasun soziohistoriko eta kulturalen zehaztapenak gehitzen badizkiogu, liburuak bere helburu didaktikoa lortzen duela esan genezake.

Bestalde, hamarkada honen hasierakoa da, 1990koa, hain zuzen, Santiago Onaindiaren *Euskal Literatura* ezagunaren seigarren alea. Dakizuenez, historia hau mendeka edo belaunaldika (batez ere, XX. mendeko egileen kasuan) dago antolatuta eta euskalki desberdinak kontuan hartuz. Alabaina, azpimarratzekoa da ez dela gaur egungo metodologia kritikorik erabiltzen autore eta obra desberdinen bilakaera literarioa azaltzeko orduan. Irakurleari ez zaio ikuspegi historikorik eskaintzen.

Gorka Aulestiaren zuzendaritzapean eta filologo eta literaturaren ikerlari desberdinen lanak bilduz, 1996an, Sancho el Sabio Fundazioak *Los escritores. Hitos de la literatura clásica de euskera* eman zuen argitara. Oroituko zaretenez, liburu hau euskal literaturari buruzko erakusketa batekin batera kaleratu zen. Argitalpenaren helburu nagusia literaturaren historia zabala egitea ez bada ere, euskal letretan eragin eta garrantzia izan duten pertsonaien eta euren lanei buruzko 14 monografia barneratzen dira. Euskal literatura idatzia nahiz ahozkoa dira aztergai eta horrela, esaterako, lehenengo atalean bertsolaritzari eta pastorei buruzko artikulua bana dator. Bigarren atalean, berriz, euskal literaturaren zenbait egile klasikoren obrak komentatzen dira, Etxeparerekin hasi eta XIX. mendeko Elizanbururenganaino iritsiz. Egitasmo honetan parte hartu duten ikerlariei begiratu besterik ez dago monografia desberdinen ikuspuntua literarioa ala filologikoa izan den antzemateko<sup>13</sup>.

Eta ahozko euskal literatura aipatu dugunez, jarrai dezagun Koldo Bíguri itzultzaile eta filologoaren: "Euskal ahozko literatura tradizionalari buruzko ikerketa XX. mendean" artikulua interesgarria komentatuz (AS-

13. Ikuspuntu historiografikoari dagokionez, aipagarriak dira G. Aulestiak, 1995etik gaurdaino, *Sancho El Sabio* aldizkariaren 5., 6., 7., 8. eta 11. aleetan kaleratu dituen "Un siglo de literatura" izeneko artikulua.

*JU* 24/1, 1990, 63-92). Bigurik “ahozko literatura” edo “literatura tradizionala” bezalako kontzeptuak aztertu ondoren, mende honetan argitara eman diren historia eta monografia desberdinak komentatzen ditu, amaieran, tradiziozko genero desberdinen bilketa zehatzaren aldeko aldarrikapena egiteko. Biguriren aburuz, metodologia eskasez egindakoak dira hurbilpen eta historia gehienak eta horrek auzitan jartzen du beraien balio eta erabilgarritasuna.

Ahozko Literaturari dagozkion beste hurbilpen historiografiko batzuk komentatu beharko bagenitu, Gorka Aulestiaren *Bersolarismo* (Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1990) gogoratu beharko genuke. 1987an Renoko Unibertsitatean defendatutako tesiaren fruitua da eta 3 zatitan dago antolatuta liburua. Lehenengoan, bertsolaritzaren inguruko hausnarketa kontzeptuala egiten ahalegintzen da autorea, eta tradiziozko nahiz ahozko literaturaren inguruko gogoeta egiten du. Bigarren zati batean, bertsolaritzaren historia datorkigu eta azkeneko atalean, lau bertsolari garrantzitsuren lanak aztertzen dira (Etxahun, Pedro Mari Otaño, Xalbador eta Xabier Amuriza). Amaitzeko, bertsolaritzaren etorkizunari buruzko zenbait iradokizun edo iritzi ematen ditu Aulestiak.

Bertsolaritzaren atal hau osatzeko, ezin utzi aipatu gabe Antonio Zabalen lan itzela. 1996an *Auspoaren auspoa I eta II. (Hitzaldiak/Conferencias)* (Sendoa, Donostia) eman zuen argitara. Bertan biltzen dira Zabalak azken urteotan emandako hitzaldiak.

Birpasa honekin jarraituz, 1997. urtean Jon Kortazarrek argitara emandako *Euskal literaturaren historia txikia* (Erein, Donostia) aipatu beharko genuke. Egileak berak hitzaurrean dioskun modura, euskal ahozko literaturari eta gure letra klasikoei buruzko literatur ikuspegia eskaini nahi izan du lan honetan, eta bai halaber, alor horretan egin dena iruzkindu eta hutsuneak non dauden adierazi. Ortega y Gasseten esanak kontuan hartuz, historia hau liburu bat ez dela azpimarratzen du eta etorkizunean beharko genukeen Euskal Literaturaren Historia Kritikorako material gisara aurkezten. Kortazarrek argi uzten du 1992. urtean eginiko oposaketa baterako egindako txostena erabili duela eta ez dituela guztiz barneratu azken urteotan autore klasikoei buruz argitara eman diren lan aipagarriak. Besteren artean, Orpustanen historia aipatzen du eta bertan proposatzen den literatura klasikoaren ikuspegi literario bete eta umotua goraiatzen. Etxepareren literaturaz ere, Aurelia Arkotxak, Patxi Altunak edo Alfontso Irigoienek argitara emandako lanak gogoratzen ditu, berdin Leizarragari dagokionez edo Oihe-narti buruz. Edozein modutan delarik ere, aurreko lanetan hasitako bideari berriro ere eutsiz, literatur mugimendu nagusien argitan aztertu nahi izan du euskal literatura klasikoaren bilakaera. Horretarako, literatura idatziari dagokionez, Errenazimendua, Barrokoa edo Klasizismoa dira aipagai XVI. eta XVII. mendeetan; Neoklasizismoa XVIII. mendean edo Erromantizismoa XIX.ean.

Ikuspuntu historikoz argitara emandako beste liburu aipagarri bat Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea dugun Xabier Etxanizek prestatutakoa dugu: *Euskal haur eta gazte literaturaren historia* (Pamiela, 1998). Etxanizen liburu honen oinarrian, 1996an defendatu zuen doktorego-tesia daukagu eta datu hau guztiz da azpimarratzekoa, bera baita literatura-mota honi buruzko tesia egin duen lehenengoa. Xabier Etxanizek berak jardunaldiotan hitz egingo duenez, ez naiz gehiegi luzatuko, baina gauza bat bakarrik nahiko nuke aipatu. Euskarazko haur eta gazte literaturaren inguruan egin diren beste tesiekin batera (Eukene Martinena, 1998an eta Manu Lopezena, 2000. urte honetan), aipagai dugun hau, gure sistema literarioan leku erabat periferikoa eta ez-kanonizatua duen literaturgintza batez, hots, hurrei bideratutakoaz, mintzo dela. Etxanizen liburuan euskarazko haur eta gazte literaturaren bilakaera diakronikoa aztertzen da eta joera desberdinen inguruko gogoeta egiten.

Doktorego-tesia izan gabe ere, guztiz aipagarria deritzogu atal honetan S. Callejak 1994an argitara emandako *Haur literatura euskaraz. Lehenengo irakurgaietatik 1986 arte* (BBK / Labairu, Bilbo, 1994). Berez, 1988an argitara emandako liburuaren berridazketa bada ere, Igone Etxebarriak egindako eranskina du hasieran eta guztiz erabilgarria suertatzen delakoan gaude.

Genero dramatikoari dagozkion hurbilpen historiografikoen artean, Patri Urkizu UNEDeko irakaslearen *Historia del teatro vasco* (Orain, 1996) azpimarratu beharko genuke. 1975. urtean argitara eman zuen *Euskal Teatroaren Historia* (Kriselu, Donostia) ezagunaren aldaki osatu eta gaurkotua den honek, modu ulergarri, didaktiko eta argian aurkezten dizkigu genero honen bilakaera eta joerak gurean. Liburu bost kapituluatan dago antolatuta: Jatorria eta antzerkiz kanpoko formak (1); Zuberoko herri antzerkia (2); XVIII. mendea: Tradizioa eta ilustrazioa; Euskal antzerki berria: 1876-1936 (4) eta Gerraostea (5). Guztiaren osagarri, bibliografia gaurkotua eta euskal antzezlanen nahiz euskarara itzultakoen katalogo bana dator. Aurkezpen historiko egokiak eta edukiaren tratamendu arinak guztiz erabilgarria bihurtzen dute Urkizuren lan hau.

Zentzu hertsian historiak izan gabe, euskal literaturaren bilakaera historikoa aurkeztu nahi izan dute Iñaki Aldekoak hamarkada honetan argitara emandako zenbait lanek. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea den honek ikuspegi konparatzailea darabil bere argitalpen eta ikerketetan, dela ikuspuntu diakronikoz egindakoetan (jarraian aipatuko ditugunak), dela ikuspuntu sinkronikoz egindakoetan. Aldekoarentzat, euskal literatura mendebaleko literatur tradizioan barneratzen da eta hortik, hain zuzen, 1998an argitara eman zuen *Mendebaldea eta narraziogintza* (Erein, Donostia) liburuaren titulua. Liburu honetan barneratzen den "Euskal nobela modernoa" deritzon atala 1997an *Hizkuntza eta Literatura. Lur Hiztegi Tematikoan* argitara emandakoa da. Aipatutako hiztegian, euskal poesia modernoaren azterketa historikoa

ere egiten zuen, *Zirkuluaren hutsmina* (Alberdania, 1993) eta *Antología de la Poesía Vasca* (Visor, 1993) bikainean egindakoaren ildotik. Modernitate kontzeptuaren inguruko hausnarketa kritikoz baliatuz, euskal literatura garaikidearen joera literarioen birpasa egiten du, dela norabide nagusiak aipatuz, dela hamarkadaka aztertuz (bereziki gero eta ugari eta anitzagoa den euskal narraziojintza garaikidea komentatzean). Gure ustez, Aldekoaren azterketa hauek hurbilpen konparatzaile baterako oinarriak ematen dituzte, eta azken urteotako bilakaera literarioa azaltzeko material interesgarria eskaintzen.

Atal honekin amaitzeko, Patri Urkizuk koordinatu eta zuzendutako *Historia de la Literatura Vasca* (UNED, Madrid) mardula azpimarratu beharko genuke. Argitaratzeaz dagoen testu-liburu honetan, euskal literaturaren bilakaera historikoa deskribatzen da, hasi hastapenetatik eta gaurdaino. XX. mendeari dagokion atalean, gainera, literatur genero desberdinetan adituak diren ikerlarien artikulua dago: P. Urkizu (antzzeria), Joxerra Garzia (ahozko literatura), Iñaki Aldekoa (poesia), X. Alzibar (saiakera) eta Mari Jose Olaziregi (nobela). Horrelakorik esatea zilegi bazaigu, lan sendo eta erabilgarria izango delakoan gaude.

- b) Bigarren atal honetan, kritika izango dugu hizpide. Horretarako, azken hamarkada honetan argitara eman diren doktorego-tesiak, ikerketa kritikoak, monografiak... aipatu nahiko genituzke.

Doktorego-tesiei dagokienez, lehenago ere hauetako batzuek mintzatu nintzenek (ik. "La historiografía literaria vasca (1900-1996). Resumen crítico-bibliográfico" in *Cuadernos de Alzate* 16, 1997ko maiatza, 185-190) eta jardunaldi hauetan nire lankideek aipatuko dituztenek, ohar orokor batzuk egitera mugatuko naiz.

Gehiegi pentsatu beharrik ez dago doktorego-tesi hauetan aztertuak izan diren egileak euskal literatura-ikerketetan behin eta berriro kanonizatutakoak direla ohartzeko. Ildo horretatik, ulergarria da doktorego-tesi hauen gehiengoak poeten lanen azterketen inguruan egindakoa izatea eta ez euskal narraziojintzaren ingurukoa. Kasu honetan, tradizioaz ez ezik, behin eta berriro azpimarratutako poetika edo poeten itzaletan ere mintzo baikara. Doktorego-tesien birpasa eginez, Pizkundeko egileei buruzkoak gogoratuz hasi beharko genuke: Lizardiri buruzkoak (K. Otegi (1991); Lourdes Otaegi (1993)); Orixeri buruzkoa (G. Etxeberria, 1997); "Herri poesia eta gerraurreko lirika: Orixen, Lauaxeta, Lizardi" izenekoa (J.K. Igerabide, 1990). Lau tesi hauei, 1985ean Jon Kortazarrek Lauaxetari buruz irakurritakoa gehitu beharko genieke.

Gabriel Arestiren obrari buruzkoak ere baditugu pare bat (A. Arkotxa (1990); I. Aldekoa (1996)); ohiturazko nobelagintzari buruz, 1989an A. Toledok irakurritakoari, 1990ean S. García Trujillok defendatutakoa erantsi beharko genioke... edo garaiko euskal idazle itzulienaren, Bernardo Atxagaren, inguruko beste bi tesi: M. Jose Olaziregiarena (1997) eta U. Apalategiarena (1998). Zerrenda honi, Erretorikaren ikuspuntutik

P. Salaberrik (1997) Axularri buruz egindakoa; Jon Casenavek Jean Etchepareri buruz egindakoa (1997) eta Eneko Bidegainek (1999) ikuspuntu estilistikoz egindako D.E.A. delakoak... nahiz lehenago aipatu ditudan haur literaturari buruzko hirurak (X. Etxaniz (1996); E. Martin (1998); M. Lopez (2000)) gehitu beharko genizkieke<sup>14</sup>.

Alabaina, bada beste tesi bat, euskal literatura ez kanonizatuaz mintzo dena eta gure artean gutxiago ezagutzen dena: Linda Whitek 1996an Renoko Unibertsitatean irakurri zuen *Emakumeen hitzak euskaraz: Basque Women Writers of the Twentieth Century*. Whitek hurbilpen diakronikoa eta sinkronikoa uztartzen ditu ikuspuntu feministaz egindako bere doktorego-tesian. Euskal literaturari buruzko historia garrantzitsuenak aztertu ondoren, hala nola, Jon Kortazar, Ibon Sarasola, Mitxelena edo Villasanterena, emakume idazleen presentzia urria salatzen du eta emakumezkoen obrak neurtzeko erabiltzen diren irizpide desberdinak azpimarratzen. Gauzak horrela, aipatutako istorio horietan, obra bakarra idatzi duten autore asko edo itzultzaile bat baino gehiago bada, irizpide horiek askotan aitzakia izaten dira emakume idazleak ez aipatzeko. Nire iritziz, doktorego-tesi hau interesgarria da ikuspuntu kuantitatibo eta aldarrikatzaile batetik, baina jarraipena izan beharko luke emakumezkoek idatzitako lanen azterketa gehiago eginez.

Edozein modutan delarik ere, guztiz azpimarragarria irizten diogu doktorego-tesion guztion ekarpenari, beste arrazoiaren artean, literatur kritika garaikidean indarrean dauden teoriak eta metodologiak gure literaturaren azterketara errenditu dituztelako. Oraindik jarraitzaile gehien dituen eredu eta metodologia Semiotikoaz gain, euskal literaturaren ikerketak Harrera Teoriaz, Soziologiaz, Erretorikaz... aberastu dituzte. Dakusagunez, unibertsitatean egin diren ikerketok gutxienez monografia sendo eta zabalak eskaintzen dizkigute etorkizunean egin beharreko hurbilpen diakronikoak burutu ahal izateko.

- c) Hirugarren atal honetan, doktorego-tesiak izan gabe, egile, genero, joera edo literatur garai bati buruzko lan monografikoak aipatu nahiko genituzke. Edozein modutan, gauza bat da azpimarragarria: jarraian datozten zehaztapen bibliografikoak ez direla zabalegiak suertatuko eta liburu moduan argitaratu emandako lanez baliatuko garela gehienetan.

Omenaldi edo mendeurren batzuk gogoratuz, has gaitezen, 1988an N. Ormaetxea "Orixe" idazlearen jaiotzaren mendeurrena ospatu zela gogoratuz. Ospakizun horren ondorio dugu *Idazlan guztiak (Obras Completas)* (Etor, Eusko Jaurlaritza, 1991). Bertan, bost aletan, Orixeren lanak biltzen dira (1-3 aleak), hitzaldiak eta mendeurrenaren ondorioz egin ziren ikerketak (4. alea) eta Paulo Iztueta irakasleak Orixeri buruz egin zuen azterketa zabala ("Orixe eta bere garaia"). Egile gipuzkoarren obra aztertzeko erabiltzen den ikuspuntu aniztasuna (filologikoa, li-

14. Beñat Oihartzabalek 1981ean defendatu zuen tesia 1990ean eman zen argitara *ASJU*n: *La pastorale souletine: édition critique de Charlemagne*.

terarioa, soziologikoa...) eta lanaren osagarri liburuotan datorren bibliografia oparo eta zehatzak ikerketa honi merezi duen garrantzia ematen dio. Orixeri buruzko atala osatzeko, Luis Mari Mujikaren zuzendaritzapean argitaratutako *Orixeren aportazio literarioak* liburua (EHU, 1990) aipatu beharko genuke. Bertan, 1989an Donostian egin ziren Udako VIII. Ikastaroetan eman ziren hitzaldiak biltzen dira.

A. Oihenarten laugarren mendeurrena Euskaltzaindiak antolatutako XII. Biltzarraren eragile bihurtu zen. Haren fruitu dugu: *Oihenarten IV. mendeurrena* (Bilbo, Euskaltzaindia, 1994) eta bertan, idazle honen izaera eta obra dira sakonki aztertzen. *Hegats* aldizkariak ere idazle zuberotarra omendu nahi izan zuen bere 7. alean (1992ko abenduan) ikuspuntu kritiko eta literarioz idatzitako ikerlanak argitara emanaz.

Beste mendeurren bat izan zen, Antonio Maria Labaienena, hain justu, 1998an Tolosan Euskaltzaindiaren ekimenez antolatu ziren "*V. Herri-Literatura Jardunaldiak: Herri-antzerkiak*" eragin zituena. Bertan parte hartu zuten adituen artean, J. San Martin, P. Urkizu, B. Oihartzabal, X. Kaltzakorta... eta beste hainbat kausi ditzakegu eta euren hitzaldi interesgarriak *Euskera* aldizkariaren alean (1999, 1) irakur daitezke.

Jon Miranderen heriotzatik 25 urte bete ziren 1997an, eta gertakizun horren aitzakian, P. Urkizuren zuzendaritzapean, *Jon Mirande orhoituz (1925-1972): antologia* (KM, Donostia, 1997) kaleratu zen eta *Jon Miranderen gutunak: (1948-1972)* (Susa, 1995) ere bai. Urkizu kritikariaren zuzendaritzapean argitaratu zen, halaber, 1997ko Antoine d'Abbadie 1810-1897 Nazioarteko Biltzarraren fruitu diren hiru aleok: *Antton Abadiaren koplarien guduak: bertso eta aire zenbaiten bilduma 1851-1897; Recueil de textes: ethnographiques, géodésiques, linguistiques, littéraires* eta *Pensées, études et voyages de 1835*, hirurak Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiaren artean argitara emandakoak 1997an. *Pensées, études et...* izeneko alea Aurelia Arkotxarekin batera prestatu zuen Urkizuk. Guztiak D'Abbadie bidaiari eta astronomo ospetsua hobeto ezagutzeko material aparta, ezbaierik gabe.

Mendeurren edo omenaldien atal honetan, aipatu gabe geratu zaizkigu X. Lizardiri, G. Arestiri, Axularri edo N. Etxanizi<sup>15</sup> berriki egindakoak. Liburu moduan argitara emandakoak bakarrik aipatzeari egoki iritzi diogu laburtzeko asmoz.

Poesiari dagozkion azterketa luze eta sakonekin hasteko, hortxe daukagu 1997an Jon Kortazarrek<sup>16</sup> argitara emandako *Luma eta lurra. Euskal poesia 80ko hamarkadan* (BBK-Labayru, Bilbo) liburu mardula.

---

15. Paco Sodupe 1995ean Mikel Zarate Saria irabazi zuen *Nemesio Etxanizen biografia eta ideologia saioarekin* (Euskaltzaindia-BBK, 1996). Horretaz gainera, ikus *Egan* aldizkariaren 1999ko 3/4 alean datozen omenaldi-transkribapenak. Separata moduan ere argitaratua.

16. Kortazarrena da, halaber, 1989ko Aita Santi Onaindia Bekaren fruitu den *Euzkerea eta Yakintza* aldizkarietako olerkigintza (Amorebieta-Etxanoko Udala, 1995) liburua.



Egileak hitzaurrean dioskun modura, XX. mendeko poesiaren historia baten barruan sartuko litzateke liburu honetan egiten duen ekarpena. Proiektu horrek bi zati izango lituzke: garai jakin batzuei buruzko ikerketa eta poeta nagusiei buruzko monografia solteak. Edozein modutan delarik ere, *Luma eta Lurran* euskal poesiaren produkzioa ugaritu zen 80ko hamarkadaren mapa interesgarria eskaintzen da. Liburua bost ataletan dago banatuta: Pott bandaren poesia (1); Esperientziaren poesia (2); Iparraldeko poesia (3); Susa taldea (4) eta 13 poeta solte (5). Guztiaren osagarri, Bibliografia orokorra, poetei buruzko harrera kritikoa eta urtez-urteko poema-liburuen zerrendak datoz.

Kortazar dugu, halaber, S. García Trujillo eta A. Iturbiderekin batera, Juan Mari Lekuonaren poesia sakon aztertzen duen *Leiho-oihalen mugetan* (Erein, Donostia, 1997) egileetako bat. Lau artikulutan Oiarztungo poetaren traiektoria poetikoa eta bere obraren oinarrian datzan estetika dira mintzagai. Deustuko Unibertsitateak 1998an argitara eman zuen *Ikaskuntzak euskal literaturaz (1974-1996)* liburuak ere merezi-tako omenaldia eman zion Lekuonari.

Esandakoez gain, Poesiari dagozkion ikerketa monografiko sakonen artean, beste bi nabarmendu nahiko genituzke. Batetik, Gabriel Arestiri buruz I. Aldekoak argitara emandako *Munduaren neurria. Arestiren ahots biblikoaz* (1998, Alberdania) saiakera. Liburu honen oinarrian, egileak 1996an defendatutako doktorego-tesia dago, eta bertan Arestiren bertsoetatik mintzatzen zaigun ahots biblikoa azaldu nahi izan digu oñatiarrak. Aldekoaren erudizioa eta poesia garaikidearen ezagutza zabalak guztiz dira nabarmenak bere iruzkin eta analisi iradokitzaileetan. Bestetik, Aitzpea Azkorbebeitiak kaleratutako *Joseba Sarrionandia: Irakurketa proposamen bat* (Amorebieta-Etxanoko Udala, 1998). 1997an Santi Onaindia Beka lortu zuen lan honek. Bertan azaltzen zaigun, ikerketaren gaia Sarrionandiaren poetikaren azterketa da. Horretarako, haren poema eta narrazioak aztertzen dira, beti ere Herrera Teoriari jarraituz. Azterketa endotestuala eta Sarrionandiaren literaturgintzaren oinarri diren ezaugarriak dira ikerketaren zutabe. Azkorbebeitiaren ikerketa sendoa da, metodologikoki guztiz azpimarragarria eta modu argi eta ulergarrian idatzia. Gure aburuz, lan honetan kausi dezakegu kritika garaikideak gure literaturaren azterketarako eskaini diezazkigukeen tresna eta baliabideen adibidea. Azkorbebeitiak ohiko testu-estrategiak aztertzen ditu (izenburua, epigrafeak, hasierak, amaierak, informazio hutsu-neak,...) eta Sarrionandiaren lanetan berezkoak izan daitezkeenak iruzkintzen (intertestualitatea, kronotopoa, aurreikuspenak ...). Poliki-poliki testuon irakurle inplizitua irudikatzen zaigu modu erakargarrian.

Garaiko euskal poesiak adituen begietara lortu duen arreta eta liluraren beste adibide argi bat, zenbait euskal poetaren lanen edizio berriak erakutsiko liguke. EHUko argitalpen zerbitzuaren ekimenez, poeta desberdinen lanen edizio elebidunak argitaratu dira, gaurko irakurle-entzat interesgarriak gerta litezkeenak. Hortxe dauzkagu, Jon Miran-

de, *Ilun-argiak/Claroscuros* (1992), Mikel Lasa, *Memory Dump* (1993) eta Juan Mari Lekuona: *Ibilaldia-Itinerario* (1996).

Atal hau osatzeko, lankidetzan argitara emandako zenbait lanekin batera (XX. mendeko olerki-bertsogintza, (1990) eta *Gaurko olerkia* (1993)), biak Labayru Institutuak argitara emandakoak, guztiz aipagarriak dira *Zurgai* aldizkariaren 1. (1990) eta 2. (1991) aleak edo *Hegats* aldizkariaren 10. alea, *Enseiucarrean* aldizkariaren 6.a, edo *Egan*, *Lapurdum* nahiz *Uztaron* argitara emandako zenbait artikulu.

Euskal narratiba garaikideari dagokionez, berriz, *Hegats* aldizkariaren 4. aleak Donostian 1992an egin ziren XX. mendeko euskal literaturari buruzko I. Jardunaldietan emandako hitzaldiak biltzen ditu eta aldizkari beraren 8. alean, 1969-1993 urteetan argitara emandako narratibari buruzko zenbait artikulu daude. Narratibazko nahiz poesiazko lanak dira aztergai *Insula* aldizkariak, 1998ko azaroan, argitara eman zuen ale monografikoan. "Letras vascas, hoy" titulupean, Bernardo Atxagaren obra, Andu Lertxundi eta Saizarbitoriaren nobelagintza, Sarrionandiaren literatura, Juan Mari Lekuona, Mikel Lasa, Xabier Lete, Sarrionandia eta Atxagaren poesia, azken urteotako ipuin eta itzulpengintza, haur eta gazte literatura eta emakumezkoek idatzitako euskal literatura aztertzen dira. J. Kortazar eta M.J. Olaziregik zuzendutako ale honek, ikuspuntu, metodologia eta irizpide gaurkotuz bideratutako artikuluak biltzen ditu.

Euskal nobelagintzaren azterketei dagokienez, 1989an A. Toledok argitara eman zuen *Domingo Agirre. Euskal nobelaren sorrera* (Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo) bikainaren ostean, S. García Trujilloren *La novela costumbrista de Domingo Agirre* (Desclée de Brouwer, Bilbo, 1993) eta *Ohiturazko euskal literatura* (Mensajero, Bilbao, 1995) azpimarritu beharko genituzke. Azken biok, egileak 1989an ikuspuntu semiotikoz bideratutako doktorego-tesiaren fruitutzat har genitzake. Era berean, aipagarriak dira *Auñemendiko lorea* (1898) nobelaren mendeurrenean, Euskaltzaindiaren ekimenez Zumaian egin ziren ekitaldien fruitu diren artikuluak (ik. *Euskeria*, 1999,1, 365-385).

Horiekin batera, nobelagile desberdinei buruz kaleratu diren azterketa monografikoak gogoratu beharko genituzke. Hala nola, 1991ko Santiago Onaindia Bekari esker R. Mielgo Merinok burututako *Eusebio Erkiagaren gerraosteko elaberrigintza (1958-1964)* (Amorebieta-Etxanoko Udala, 1995) edo berriki Jon Kortazarrek paratutako *José Manuel Etxeita*, (BBK, Bilbao, 1999). Zerrenda hau osatzeko, Bernardo Atxagaren obrak eragin dituen azterketak gogoratu beharko genituzke. Batetik, hortxe dauzkagu M. Jose Olaziregik prestatutako *Bernardo Atxagaren irakurlea* (Erein, Donostia, 1998) urte bat lehenago aurkeztutako doktorego-tesiaren aldakia<sup>17</sup>. Bertan, Harrera Teoriaren ildotik, egilea asteasuarraren *Obabakoak* eta *Behi euskaldun baten memoriak* aztertzen di-

---

17. Aipatutako doktorego-tesiaren atal soziologikoa *Euskal gazteen irakurzaletasuna. Azterketa soziologikoa* (Bergarako Udala, 1998) liburuan argitaratu nuen.

ra, eta bere lanaren harrera kritikoaren berri ematen duen bibliografia zabala eskaintzen. Bestetik, 1999ko martxoaren 27an Baionako Fakultatean egin zen *Journée d'Etudes consacrée a l'oeuvre de Bernardo Atxaga*. *Bernardo Atxagaren obrari buruzko ikerketa eguna*. *Parcours atxaguiens-ibilbide atxagarrak* delakoan esandakoak biltzen dituen *Atxaga Baionan* (Egan-Hiriak, 1999) aipatu beharko genuke. Atxagaren beraren hitzaldiaz gain, I. Aldekoak, M.J. Olaziregik, U. Apalategik, T. Peillenek eta A. Azkorbebetiak idatzitako artikulua dago.

Bestelakoan, ohiko euskal aldizkari literarioetan, edo Euskal Editoreen Elkarteak kaleratzen duen "Klasikoak" bilduman, narraziogintzari (nahiz poesiagintzari) buruzko hainbat eta hainbat artikulua interesgarri aurki dezake euskal irakurleak (*Hegats*, *Egan*, *Enseiucarrean*, *Lapur-dum*, *ASJU*, etab.). Ezin guztien berri eman artikulua honetan.

Bukatzeko, eta genero-sailkapenari ihes egiten diotelako, aipatu besterik egingo ez ditugun zenbait ikerlan. Alde batetik, gertakari historikoek gure literaturgintzan izan duten isla eta eragina aztertzen duten: *Gerra eta Literatura (1914-1944)* (Oihenart 14, Eusko Ikaskuntza, 1997) eta *La Révolution française dans la littérature basque du XIX siècle: actes du Colloque International de l'URA 1055 du CNRS tenu à la Faculté Pluridisciplinaire de Bayonne les 28 et 29 juin 1993* (Izpegi, Baigorri, 1994) liburuak. Bestetik, euskal emakume idazleen lanak aztertu nahi izan dituzten argitalpen berriak. Hasi M. Atxagak argitara emandako *Euskal emakume idazleak (1908-1936)* (Eusko Jaurilaritza, 1997) liburukatik, eta M.J. Olaziregik 1998ko Angel Apraiz bekari esker idatzitako: *Intimismoaz haraindi. Emakumezkoek idatzitako euskal literatura* (Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1999) liburuarekin jarraituz, poliki-poliki euskal emakumeek idatzitako literaturaren gaineko sorkuntza kritikoa umotuz doa. Horien osagarri, udaberri honetan Anthropos argitaletxeak argitara emango duen *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)* aipa genezake. Bederatzi adituk hartu dute parte bertan: Linda White, A. Arkotxa, L. Otaegi, A. Toledo, E. Martin, C. Larrañaga, A. Iturbide, I. Etxebarria eta M.J. Olaziregik. Dela gizezkoen lanetan emakumezkoen irudiak aztertuz, dela emakumezkoek idatzitako lanak komentatuz, argitalpen honek ere gurean gehiegitan ahazten diren idazleez, emakumezkoek, hitz egiten du.

### **Bukatzeko. Zenbait iradokizun dekalogo moduan aurkeztuak**

Iritsia zaigu ordua lerrootan laburbildutakoei amaiera emateko. Ikusi dugunez, alderdi askotatik ahalegindu gara egungo euskal kritikaren inguruko gogoeta bideratzen. Hasi kritikak gaur egun gizartean duen gutxiespenarekin eta gaurko literatur sisteman duen lekua zehaztu ondoren, azken urteotan euskal literaturaren kritikan eta ikerketetan eman aurrerapausoak deskribatu ditugu. Esandako guztiaren ildotik, honako ideioak azpimarratuz amaitu nahiko nuke:

1. Historiografiaren alderdia dugu, oraindik ere, gure ikerketetan ahulenetako. Alde batetik ulergarria bada ere (historia egiteko ezinbestekoa baita denbora, distantzia) bestetik, gure ikerketetan nagusitu den joera baten isla ere badugu. Alegia, azken hamarkadetako lanak aztertzeari muzin egiten dion joerarena.
2. Ildo horretatik, oraindik gurean dagoen topikoa apurtu nahiko nuke. Topiko honen arabera, ikerketa serio eta zehatza egiteko, azken urteotako obrak eta egileak ez dira aztertu behar. Doktorego-tesietan oraindik entzuten den kontu hau (barkatu ironiaren gogortasuna baina nork ez du inoiz entzun hobe dela hildako idazle bati buruzko tesia egitea, modu horretan, gehiago argitaratuko ez duelako ziurtasuna daukagulako?), gure literatura garaikidearen ikerketa sinkronikoen atzerapenaren eragile ere bada.
3. Metodologia eta analisi-irizpide zehatz eta onartuak erabiltzeak, ez du, inondik ere, ikerketa baten seriotasuna bermatzen. Nahi dugun hurbilpen mota planteatu dezakegu, baina beti, Leo Spitzerrek esan zuen moduan, kritikoak artelanarekiko (ez idazlearekiko) duen enpatia eta intuizioa funtsezkoak izango dira azterketa bideratzeko garaian. Zientziaren teorian onartuta dagoen ezaugarri hau, maizegi ahazten da literatur kritikan. Horregatik, lehengo eta behin, ezinbestekoa dugu ohartaraztea kritikoa irakurle bat dela, eta bere gaitasun eta igurikimenez baldintzatuko dutela azterlanaren kalitatea bera. Hau guztia kontuan hartuz, eta Leik Eriksonek (ik. *Groenlandiako lezioa*) esan zuen moduan, testuak gugan erresonantzia eragiten duelako, horretaz mintzatu behar da kritikaria. Honen arabera, prest egon beharko du bere buruaz ez hitz egiteko eta azterkizun duenaren aurrean apaltasunez jokatzeko. Erudizioa ongi dago, baina kontura badator.
4. Kritikaren funtzioari dagokionez, aspaldi pasa ziren modaz kritiko jainkotuen ezaugarriak zituztenen ikerlanak. Kritikak gaur egun irakurketen berri ematen du. Irakurketaren metaforak deritze Paul de Manek. Ez du zertan obra baten kalitatearen epailetza eta aldarrikapena bere gain hartu behar.
5. Metodologia kontuei erreferentzia egin diedanez, azpimarra dezadan azken urteotako joera nabaria: eklektizismoa. Gero eta argiago dago, metodologia edo ikuspuntu bakar batek ez dezakeela derrigorrez testu baten balio literario guztia azaldu. Alegia, metodologia desberdinetako ekarpenak konbina daitezkeela (ad.: Harrera Teorian Hermeneutika eta Soziologia), bakoitzetik komeni zaiguna hartuz.
6. Euskal kritikaren kasuan, eten handiegia dago kritika publiko eta akademiakoaren artean. Bakoitzaren esparrua defendatuz ere, on litzateke hurbilketak ematea eta maila akademikoan egiten diren ekarpenez irakurleria baliatzea. Honi dagokionez, kritikaren konpromisoaz ere mintzo gintezke.
7. Gure literaturaren ikerketan eskasak dira oraindik hurbilpen sozio-historikoak. Literaturak euskal gizartean duen lekua neurtzeko ezinbestekoak dira.

8. Sistema periferikoen azterketa gehiago behar dira. Itzulpenak, emakumezkoek idatzitako literatura, haur literatura... gehiago ikertu beharko genituzke.
9. Egokia liteke behingoz euskal literaturaren Historia Kritikoa (gaztelaniaz Ricok egindakoaren antzekoa) martxan jartzea. Bertan, azken ikerketak, bibliografia... etab. barneratuko lirateke eta orain daukagun sakabanaketa konponduko.
10. Iruzkin guztiok ideia bakarrean oinarritzen dira: euskal literatura ezagutzeak, euskal literatura maitatzen ere irakatsiko digula. Benetako literaturazaleak izaten. Hori da, ezbairik gabe, gure etorkizuneko erronka nagusia.